

# Noaqua!!

H A M A B O S T E K A R I A

1998ko apirilak 8 III. urtea

Usurbil, 40. Zenbakia



**Zabor bereiztuen  
bilketaren  
nondik-norakoa**



## Txerrimunik ordainetan



Zorionak **Eneka Urdangarin**. Zuri ere mende laurdena iritsi zaizu. Zorionak zure mende laurdenean. Idoia eta Amaia.



Zorionak **Jaione Agirre**. Martxoaren 30ean 18 urte bete hitunan. Laister bastoi bat oparitu beharko dinagu, hemendik aurrera urteak binaka joaten omen ditun eta! Hire lagun kuttunak.



**Mikel Izagirre**. Martxoaren 26an bete zenituen urteak adina musu. Zure seme Oier, emazte Jone eta Usurbilgo familiaren partez..



**Ainhoa Urdangarin**, bikiak izonda biak zoriondu behar ezta? Zorionak zure mende laurdenean. Amaia eta Idoia.



**Unai Roteta Lizaso**. Apirilaren 11n sei urte bete-ko dituzenez zorionak amona Teresa eta familiaren partez. Ondo pasa bihurri.



**Javi Sancho**. Zorionak eta ondo pasa dezazula apirilaren 15ean. Familiaren partez zorionak eta muxu handi bat.



Zorionak **Edurne Sueskun**. Apirilaren 1ean zure urtebetzea izanik gu ezin ginen ahaztu. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partez.



Apirilaren 4a ere iritsi zen. Hala ere zutaz ez gara ahaztu. Zorionak **Aitor Sueskun**. Zuri ere hemen doakizu musu handi bat. Familiaren partez.



**Oihan Errekondo Altuna**. Apirilaren 12an 3 urte bete-zean zorionak lehengusuen partetik.



Zorionak **Pepi Martija!** Espero dugu oso ondo pasa duzula berrogeita... beno, zure urtebetzean. Muxu handi bat. Etxekoak.



Zorionak **Leiretxu Mujika**. Martxoaren 31ean, ez badirudi ere, 17 urte bete zenituen. Muxu bat etxeko- en partez.



Zorionak **Andertxu**. Zuk ere martxoaren 31ean egin zenituen urteak. Urteak ez, urtea esan beherako, urtebete egin duzu eta. Muxu bat etxeko en partez.



**Maialen Saez**. Apirilaren 15ean 20 urte dituzenez zorionak eta egun ona pasa. Zure guraso eta familli osoaren partez.



Zorionak **Arantxa Sagardia**. Apirilaren 9an zure urtebetze eguna denez gu ez gara ahaztu. Etxekoak.



**Zaloa Arnaiz**. Zorionak kuadrilaren partez. Apirilaren 13an 21 urte eder!



**Gorka Aierbe Maiztegi**. Zahartzen ari haiz Gorka, 24 urte gainean dituk ja. Apirilaren 22an zer bait hartzera gonbidatuta gaude ezta? Zorionak! Hire lagunak.



**Eider Tapiak** 13 urte beteko ditu apirilaren 8an. Egun polita pasako zure urtebetetze egunean. Entrenatzailea.



Zorionak **Intza Salsamendi**. Apirilaren 20an 17 urte betetzera zoazenez ondo pasa zure urtebetetze eguna.



**Aloña Pulido Orbegozok** joan den martxoaren 27an egin zituen urteak. **Borjak**, berriz, apirilaren 24an egingo ditu. Zorionak biei eta **Ana Orbegozori** ere bai. Etxekoak.



Martxoaren 31an **Kontxi Landa** eta **J.M. Arrospidek** zilarrezko ezteiak ospatu zituzten. Era berean apirilaren 12an Kontxik 51 urte beteko ditu. Zorionak biei. Zuen familia.

Norbaitek senide, lagun, adiskide edo ezagunen bat zoriondu nahi badu hemen dauka dohaineko aukera. Argazki bat eta zorionduaren izen, abizen eta urtebetetze egunak nahikoa dira. Datorren alean norbait zoriondu nahi baduzu eraman edo bidali datuak Noaua!ren egoitzara apirilaren 18a baino lehen

## Hildakoak

1998-3-27  
**Jose Utrera Sanchez**  
55 urte  
Etxealdia



# Zer irizten?

**Argitaratzailea**

Noaua! Kultur Elkarte  
Kale Nagusia, 37  
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)  
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21  
E-mail: noaua@topagunea.jalgi.com

**Zuzendaria**

Olatz Altuna

**Kazetariak**

Ainhoa Azpiroz, Idoia Torregarai,  
Josu Aranberri, Garikoitz Udabe

**Kolaboratzaileak**

Pedro Mari Matxain, Ines Kamino,  
Leire Atxega, Iñaki Labaka, Iratxe  
Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier  
Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal,  
Nieves Aranburu, Luis Aranalde,  
Zalao Arnaiz, Maribi Arrospide,  
Agurtzane Solabarrieta, Joseba  
Pellejero, Joxe Aginaga, Ainara  
Uribe, Eider Jauregi, Olatz Leoz,  
Agustin Esnaola, Izaskun Zubiria,  
Olatz Goenaga, Izaro Aizpurua,  
Joxe Loidi, Begoña Arriaga eta Joxe  
Torregaray.

**Administrazioa**

Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea eta  
Nerea Kamino.

**Erredakzio Kontseilua:**

Olatz Altuna, Garikoitz Udabe, Jose  
Jabier Furundarena, Iñigo Azpiroz,  
Idoia Torregarai, Josu Aranberri,  
Ainhoa Azpiroz.

**Maketazioa eta diseinua**

Susana Martin, Aitziber Elortza, Olatz  
Goenaga eta Mertxe Gonzalez.

**Dokumentazioa**

Idoia Agirre eta Aintzane Aizpurua

**Informatika**

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

**Banaketak**

Mertxe Jimenez, Txelo Vidal eta Iker  
Muguruza

**Elektrikaria**

Iñaki Salsamendi

**Sukaldaria**

Joxe Mari Sarasola

**Tirada:** 2.200 ale

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818

**Inprimategia:** Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



## Autoenplegu berriak

**Josune Mujika**

Enplegu Sustapena

**A**utoenplegu ekimen berriak bultzatzeko asmoarekin otsailak 2an hasi genuen usurbilen enpresa kudeaketa eta sorkuntza ikastaroa, martxoak 31 arte iraun duena lehenengo fasean. Fase honen helburua, negozio ideia duten pertsonen enpresa proiektua lantzeko eta enpresaren kudeaketarako beharrezkoak dituzten ezagutzak eta baliabideak eskeintzea izan da.

Autoenplegu ekimen berriak bultzatzeko egitasmo honek bigarren fase bat ere badu. Bigarren fase honen helburua sustatzaile bakoitzari bere negozio plana egiteko eta enpresa martxan jartzeko beharrezkoak diren pausoetan bakarkako aholkularitza eskeintzea da. Martxoaren 6an hasi ziren bakarkako aholkularitzarako elkarriketak, eta egun, fase hau garatzen ari da oraindik.

Egitasmo honetan 15 sustatzailek partehartzen dute, hauen artean 15 enpresa proiektu egonaz. Hauek dira proiektuak: piper ontziratzea, lorearen artea eta landare txikien produkzioa, kafetegia, altzairuen berritzea, ordukako haurtzaindegia, estetika zentroa, margotzako tailerrak, eraikuntzako materialen esposaketa eta gremioen arteko koordinaketa, estan-

ku paeleria, argazki denda, interneten bitartezko zerbitzuak, komunikazio gaietarako asesoria, garraio agentzia, itulpen enpresa eta catering-a.

Datorren urteari begira udalak egitasmo bera martxan jartzeko asmoarekin, Eusko Jaurjaritzako Lan Sailari dirulaguntza eskatu berri dio. Udalaren asmoa autoenplegu ekimen berriak bultzatzen jarraitzearena da. Negozio bat martxan jartzeko asmoa baduzu jo ezazu udaleko Enplegu Sustapen zerbitzura, bertan enpresa ekimen berrien sustatzaileei orientabide eta laguntza eskeintzen baitaie.

Bestalde, hipermerkatu eta superfizie haundiak gero eta gehiago zablatzen ari direla gauza jakina da. Usurbilen ere Eroskiren proiektua aurrera doa eta komertzio txkia gero eta kompetentzia haundiagoarekin aurkituko da. Horretarako prestatu egin behar du, garai berrietara egokitu.

Eskaparatismo eta paketeria ikastaroen eskaintza egina dugu ja. Denda txikiek erakargarri bihurtu behar dute eta eskaparatea da bide bat. Ekimen honek gai hauengatik kezkatuta dauden komertziantek biltzeko lehenengo pausoa besterik ez du izan nahi. Animatu zaitetzte!

Azala:  
Beira edukinontzitik  
kamioira botatzen



Usurbilgo Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Kultura sailak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Gipuzkoako Foru  
Aldundiak diruz  
lagundutako aldizkaria



Euskal presoak  
Euskal Herrira!



### Aurrekontuei buruz, EAJ-PNVren erantzuna HBri

Berriro ere aipatzen duzue Noaia! aldizkaria ez dela egokia gai hauek azaltzeko. Gure ustez herriko aldizkaria da, denok ordaintzen dugun aldizkaria, eta usurbildarrek udal kontuen berri izateko duten aukera zuzena.

Behin eta berriz gure alferkeria aipatzen da. Min ematen dizue gure presentziak. Dudarik ez dago guk gure lana egiten dugula, gure dedikazioa dugula, baina noski ez gaude zuen esanetara.

EAJ-PNV-ren zuen aurrekontuekiko desadostasuna %1ekoa bakarrik dela pentsatzea inozentekeria da. EAJ-PNV zuen aurrekontuen aurka dago eta horrela adierazi genuen plenoan, ez kopuruekin bakarrik, erabiltzen dituzuen moduekin ere bai. Hona hemen adibide batzuk:

-Frontoi bat egiteko baseri bat espropiatzera zuek bakarrik ausartzen zarete. Frontoia egin daiteke, baina baserriak espropiatu gabe.

-Bide bat defenditu eta egin, egin daiteke, baina eskubide guztiak errespetatuz eta ez espropiazioa eguneroko ogi moduan erabiliz. Gainera, Eguzkitzako bidea moztuta geldituko da Orioko muga, beraz pasabiderik ez da geldituko. Eta dagoeneko H.Bk milioi mordo bat gastatuak ditu.

-Nola adjudikatzen dituzue harraldietarako etxeak? Beharra dutenei emanaz ala beharra eta zuen gustokoak direnei bakarrik?

-668.576.338 pezetako aurrekontua gestionatzen duzue eta auditoriarik zergatik ez duzuen egin nahi ez duzue azaldu nahi. Diru hauek ez dira zuenak herritarroak baizik. Auditori batek esango du ondo erabiliak izan diren ala ez. Zeren beldur zarete?

Kalezarko parkea garrantzitsua da, baina elizako kanpaien konponketa ez al da garrantzitsua? Eta udaletxearen lokal bat umeentzat egokitzea ez al da garrantzitsua?

Espero dugu gure presentziak min ematen jarraitzea, eta jakin ezazue Eusko Alderdi Jeltzaleak hemen jarraituko duela lanean.

### Usurbilgo EAJ-PNV

### Eroskiren inguruan

Eskerrik asko alkate jauna, eskerrik asko zuri eta zurekin batera Eroskiren proiektua aurrera ateratzeko ahalegin guztiak egin dituen udal korporazioari ere. Oraindik gogoan ditut zuek erabiltako hitzak: Eroski Usurbilen jarri ez badute, Galarretan jarriko dute eta kalte berdinekin abantailak ez dugu izango.

Zer deritzozue orain? Badirudi bi proiektuak aurrera doazela, non gelditzen gara gu, Usurbil, Lasarte, Donostia, Hernani... inguruko herrietako komertziantek? Zer eskubide dauzkagu guk, zergak ordaindu eta isilik egon?

Bizpahiru urtetan Gipuzkoan bi merkatal zentru izatetik, zazpi edukitzera pasako gara, eta gehienak gure inguruan jarriko dituzte.

Zentro komertzial hauen abantailak zeintzuk diren denok dakigu. Ni ere joaten naiz noiz edo noiz, baina zenbat jarri behar dituzue? Gu akabatu arte?

Dagoeneko planifikazio bat eskatzea berandu da, baina Usurbil eta Usurbil bezalako herrietako komertzianteen desagerpenaren errudunak zu eta zu bezalakoekin erantzunkizuna izango da.

Usurbilgo udalak, HBko udalak jarrera hau izango zuela orain dela urte batzuk esan izango bali date ez nuen sinistuko, baina diruaren aurrean beste alderdi politikoak erakusten duten jarrera berdina azaldu duzue.

Bukatzeke, berriro ere, eskerrak eman beharrean aurkitzen naiz, antolatutako dituzuen ikastaroak (eskaparatismo, paketeria...) ziur oso interesgarriak direla. Zoritzarrez, zuei esker laister ez dugu zer bildurik izango.

### Usurbilgo dendari bat.



## Telesforo Ardoak



Zure mahairako egokienak

Kale Nagusia, 25  
Telf. 36 12 20

Arkume erretegia

Arkumea parrilan

Haurrentzako parkea

Zumartegi industrialdea  
Aitezarra kalea, 4



Aparkalekua

Barazkiak parrilan

Etxeko berezitasunak

Ospakizunak eta despedidak

USURBIL Tel.: 36 60 49

**ANDONI** PINTURAK

Barnelantzu Espezializatua

Itxasko-Berri etxea Tel: 36 13 18  
Usurbil Mobila: 939 70 08 67



# Berriketan



## Mari Angeles Arruti Izeta

Ziur Seat 600 batean ikusi duzula noizbait 47 urteko emakume hau. Irribarrea ahoan eramaten du Aian jaio, 5 urterekin Usurbila bizitzera etorri eta 19rekin, ezkondu ondoren, Aginagako Gomentzaenean bizi den emakume honek.



**Noaualren egoitza honek oroitzapen ugari ekarri omen dizkizu.**

Bai horixe. Umetan hementxe ibili ginen eskolan. Barrabaskeria ugari eginak gara hemen. Ikastera etorri eta ikasi ez beste gauza guztiak egiten genituen. Udaran ere lagun taldea ikastera etortzen ginen, baina ikasi beharrean komune-ko lehiio txikitik atera eta aurreko baratzeko gerezi arboleko gereziak biltzera ateratzen ginen teilatura.

### Ez al zineten behera erortzen?

Ni teilatutik behera erori nintzen behin. Izugarriko golpea hartu nuen, baina etxean nahiz eskolan erori eta min hartu nuela ez ziren konturatu, isilik gorde bainuen. 30 urte ondoren masajista batengana joan eta izterrean noizbait golpe handi xamarra hartua nuela esan zidan. Amari galdetu nion ia noizbait erorketaren bat izan nuen eta ama ez zen gogoratzen. Handik egun batzuetara jabetu nintzen gereziak biltzen erori nintzen hartakoa zela golpea.

### Aiarra, usurbildarra edo aginagarra da Maria Angeles?

Nik beti Aierra naizela esaten dut, han jaio bainintzen. Bost urterekin etorri nintzen Usurbila bizitzera eta 19 urterekin ezkondu ondoren Aginagan bizi naiz. Aginagarra, usurbildarra edo aiarra deitu ez dit axola.

### Kotxean ibiltzea asko gustatzen zaizu?

Kotxean ikusten al nauzu ba beti? Egia da, bai, niretzat kotxea ezinbesteko tresna da, kotxerik ez balego zer egingo nuke nik! Lanera joateko, Usurbilgo familia bisitatzera joateko, erósketak egiteko... behar beharrezkoa dut kotxea.

**Zenbat urterekin atera zenuen gidatzeko baimena?**

19 urterekin atera nuen. Orduan azterketa bakarra egiten zen eta nik hirugarrenean atera nuen.

### Seat 600 batean ikusi izan zaitugu askotan.

Asko maite ditut nik seiszientosak. Ezkondu eta gero bat izan genuen, eta gero ere orain dela gutxi arte beste bat eduki dut nik. Seiszientos kotxeen topagune horietako batera ere joan nintzen behin, zenbat argazki atera ote nituen!

### Eta orain ez duzu seiszientosik?

Tailerrera eraman nuen konpontzera. Etxean denak kontra nituen baina ni nirearekin atera eta konpontzera eraman dut. Nire kutizia da seiszientosa.

### Prentsa arrosa irakurtzen al duzu?

Pronto aldizkaria erosten dut baina ez dut irakurtzeko denborarik izaten. Begiradatxo bat bota, titularrak irakurri eta han gelditzen dira pila batean. Orain, Aste Santuan Saloura noa oporetara eta maleta batean sartuta ditut urte osoko aldizkariak han irakurtzeko.

### Zer egin behar duzu zuk Saloun?

Lo. Horixe da gustora egingo dudana. Urte osoan izaten dudana lo falta Saloun erreperatzen dut. Ni Saloura lo egitera noa.

### Telebista ikusten al duzu?

Hautsa kentzerakoan bakarrik... "Quien sabe donde" ikustea gustatzen zait baina oso berandu amaitzen da, askotan erdi lo egoten naiz, begi bakararekin begira.

**SERIGRAFIA**  
**TANPOGRAFIA**

**LOSU**

Ugaldea poligonoa 36 - 2<sup>o</sup> Esk  
Usurbil - Gipuzkoa

37 19 54

**INDYSTRIA ETÁ**  
**IRAGARKI SERIGRAFIA**  
**KAMISETEN INPRIMAKETA**

**WOLFWANGELN**

**TABERNA**

**Goiz goizetik gosariak**

**7 t'erdietan irekitzen dugu**

Irazu kalea, 12  
Tlf: 36 02 17

**EGIN ZAITEZ**  
**NOAUA/KO**  
**BAZKIDE!**



# TXOKOALDE

Iñaki Labaka



## Telebista kate pribatuen zain

**A**ntena berria jartzera doa-azela entzutea albiste pozgarria izan da telebista ikustea gustuko dugunontzat. Txoko honetan hainbat aldiz aipatu izan dudanez, telebista kate pribatuak ikustea ia ezinezkoa da Txokoalden. Kate horien irudiak ikustea gauza normala da Usurbilen, baina ez gure auzoan. Erreka zulo honetan, mendi artean bizitzearen errurik ez eta besteek ikus ditzaketan telebista kateak ezin hartu, horra hor gure destinua.

Hala ere, hau guztia konpon-  
tzeko bidean da. Urdaiagan  
jarriko duten antenarekin kate

pribatuak ikus-  
teko aukera  
izango dugula  
agindu digute.  
Ez hori bakarrik,  
beste kateak  
ikusterakoan  
ere alde ede-  
rra sumatuko  
omen dugu.  
Horrenbeste  
denbora itxa-  
ron eta gero  
gustura hartzen dira horrelako  
berriak.

Oria ibaian ez, baina bertara  
doazen erreketako batean ia  
bi kiloko amuarraina harrapatu



zuen **Garikoitz Alkorta** martxo-  
aren amaieran. Lehen ohikoak  
izaten ziren honelakoak baina  
gaur egun erreka txikietan  
amuarrainak harrapatzen dituz-  
tenak ez dira asko izaten .

# KALEBERRI

Paulino Ibargoien



## Udaberriarekin batera bero-bero

**A**pirilean gaude ja. Maiatza  
ere ate joka laister hasiko  
da, eta guk, tabernariok,  
gogotik egin beharko dugu  
lan. Badakizue, maiatza langile  
egunarekin hasten da eta  
herrian dauden hainbat ekin-

tza tarteko udaberri giro polita  
sortzen da gure herri txiki hone-  
tan. Andatza eguna izango da  
lehenengo, sagardo eguna  
hurrena, eta jendea bero-bero.

Tabernarien elkartekoak ere  
motorrak berotzen hasiak gara.

Logotipoaren lehia-  
keta egin eta logo-  
tipoa aukeratu  
ostean ahalik eta  
azkarren gure sello  
propioa atera  
dugu. Diesel moto-  
rrekin joan arren,  
poliki-poliki aurre-  
runtz goaz, eta  
aurrerantzean ere  
hainbat egitasmo  
ditugu, metxeroak,

kamisetak... bakoitzari ailegatu-  
ko zaio bere ordua.

Logotipoa aukeratzea ez zen  
batere erraza izan. Tabernariok  
bildu eta logotipoak aztertu  
ondoren botazioz erabaki  
genuen zein izango zen gure  
logotipoa. Lehia bi logotipoa-  
ren artekoa izan zen. Logotipo  
serioa zen bat, harmarri baten  
antzekoa, eta grazia pixkat  
zuen bestea. Azkenean, bada-  
kizue, Aitziber Lanberri eta  
Olatz Goenaga lehengusuen  
logotipo "grazioso" aukeratu  
genuen. Hemendik aurrera  
behin eta berriz ikusiko duzue  
gure logotipoa bai herriko  
tabernetan eta bai edozein  
txokotan.





# ATXEGALDE

## Lerro hauek idatzi nahian

**E**z da erraza Atxegalderi dagokion kronika hau idaztea. Hamabostean behin lerro hauek idazteko berriren bat behar izaten dugu eta Atxegalde bezalako auzo batean ez da nahi adina informazio izaten.

Askotan bideetan egiten ari diren obrak, ikastolako berriak gehiegitan aipatzen ditugula esan izan digute, baina zertaz hitz egingo dugu bestela?

Azken asteetan urbanizazioaren berriztatze lanak hasi dira Atxegaldean. Berri garrantzitsua da, bai, baina beti gai berdina izan behar al dugu esku arte-

an? Guk nahiago genuke Atxegalde etengabeko informazio iturria izatea, baina hori gutxitan gertatzen da.

Atxegaldeko aspaldiko kontuetaz idaztea posible izango balitz idatziko genuke, baina kontutan hartu Atxegalde dela Kalejiraneko auzorik gazteena.

Hala ere, atxegaldegar guztien artean bete ditzakegu lerro hauek. Zerbait gertatzen denean, ideien bat duzuenen, edozer gauza

Amagoia Mujika



duzuela ere, gurekin harremanetan jarri eta elkarrekin lerro batzuk idatziko genituzke.

Badakizue, zuen laguntzarekin errazago beteko ditugu lerro hauek.



# KALEZAR

## Arratzaingo itzulia

**P**aseatzeko giro ederra izan dugu azken hilabete hauetan. Kotxea alde batera utzi eta gora eta behera, alde batetik bestera, oinez, korrika edo bizikletan jend ugari pasatzen da Kalezartik.

Zubietako itzulia egitetik datozenak asko izaten badira ere, Arratzaingo itzulia ez da makal gelditzen. Paseotxo baina zerbait gehiago egin nahi duenarentzat ibilbide egoki eta inguru onekoa da. Agerialdetik gora hartu eta aldapa gogorak topatuko ditugu Arratzaina iritsi aurretik. Igo ondoren jeitsi egin behar izaten da eta Artxubietatik bueltan, ibarrola bidean lehen igo-

takoak jeitsi beharko dira, abiapuntura iritsi nahi bada behintzat.

Garai batean jende askok egiten zuen Arratzaingo itzuli hori. Orain ere, batzuetan, ikusten ditugu Ibarrola aldetik behera jeisten, baina Zubietarako bidea hartzen dutenak gehiago dira.

Kotxeak gutxi, goitik paisaje ederrak eta aire garbia hartzeko zer

hoberik goi alde horretara joatea baino. Hemen ez dituzu horrenbeste kotxe ikusiko, autopistan doazenak ez badira behintzat.

Ainara Uribe





# SANTUENEA

Agurtzane Solabarrieta



## Amuarrainik gabeko urtea

**A**rrentza denboraldia ireki denean Ibai-Ondo elkar-tearen aipamenik egin gabe ezin geldituko gara. Azken 15 urteetan amuarrainak hazi izan dituzte elkar-tearen atze aldean

dagoen txabolan. Agustin Azpillaga eta Antonio Orbegozok jarri zituzten lehen aldiz orain dela 15 urte inguru eta harrezkero urtero-urtero hazi izan dituzte amuarrainak.

dituzte. Lehen elkarteko kideek zuten ardura hori. Amuarrainak hartu eta Puntapax edo Santio-errekara botatzen dituzte.

Aurten, ordea, ezin izan dituzte amuarrainak hazi. Ekainaren 1ean izandako uholdeek zenbait ur hodietan kalteak eragin eta txabola ez dago amuarrainak hazteko prest. Udalari konponbideren bat aurkitzeko eskatu diote ja eta datorren urtean berriz ere amuarrainak hazteko itxaropenarekin daude Ibai-Ondo elkartekoak. Ea ba arazoak konpondu eta urte bukaeran amuarrainen arrautzak ekartzeko modurik izaten duten.



Santo Tomasetan ekartzen dituzte amuarrainen arrautzak. Urte bukaera izaten da jaiotzerako eta maiatza aldean 5-6 zentimetroko luzera hartzen dutenean, errekaren batera botatzeko basozainek eramaten

# URDAIAGA

Leire Atxega




## Ingurugiroa zaindu behar da

**U**rdaiagan antena berria jartzera doaz. Urdaiagako depositoaren gainean Retevision eta telefonikak antena bakarra jarriko omen dute azkenean. Hasierak bi antena, bakoitzak bat, jarriko zutela ere esan zuten, baina azkenean bi enpresek erabili ahal izango duten antena bakarra egongo da.

Usurbilgo telekomunikabideen zerbitzua hobetzeko balio izango duen antena hau jartzeko sei hilabete inguru beharko dituzte. zerbitzuak hobetuko dituela gauza jakina da. Txokoalden telebista kate pribatuak ikusi ahal izango dituzte

eta kate publikoak ere garbia go ikusiko dira antena jartzen dutenetik aurrera. Hala ere nik badut galdera bat. Antena honek ez du kutsadurarik sortuko ezta? Ingurugiroari ez dio kalterik egingo? Erantzuna baiezkoa izango balitz honelako antena jarri behar den ala ez pentsatzekoa litzateke. Urdaiaga bezalako inguru ber-



dean kutsadurarik ez dugu behar orain. Kotxeak botatzen dutenarekin nahikoa dugu. Eguraldiak bere horretan jarraitzen badu jende ugari hurbilduko da Urdaiagara, Leizekaldeko parkera hain zuzen ere.



# AGINAGA

## Aginagako sartu-irteerak

**A**ginaga ere itxuraldatzen ari da pixkanaka-pixkanaka. Azken urteetan ez zen etxe berriak egin eta orain, aldiz, etxe berriak eraikitzeaz gain lehengoak eraberritzen ari direnak ere ez dira gutxi.

Elutx aldean zenbait etxe amaitu zituzten eta alde horretara begiratzen dugunean beste aire bat eman dio Aginagari. Inguru horretara sartzeko errotonda bat ere egin zuten. Hala ere, komeniko litzafeke beste sarreren egoera hobetzea. Aginagan N-634 errepidean ziztu bizian pasatzen dira kotxeak eta

Aginagatik atera edo bertara sartzeko koska haundiegiak daude bide ertzean.

Askotan ez gara konturatzen, baina istripuak izateko leku aproposa da Aginagako sarrera. Bide ertzetan kokxa dute sarrera gehienek eta horrek abiadura hartzea

Iratxe Begiristain



oztopatzen du. Koska horiek kenduko balituzkete sikira. Sartu-irteera hobeak izango genituzke.



# ZUBIETA

## Udaberriko martxa

**U**daberria ernaltzarekin batera, bizi-bizi azaldu zaizkigu herriko taldeak neguko lan ezkutua erakustera. Antzerkilari gazteak bete-betean ari dira obra berriak prestatzen eta pelotariak frontoi estalietatik plaza libreria pasa zaizkigu. Beste kolore bat hartzen du orain Zubietako plazak, beste grazia bat.

Iparraldeko ligak antolatzen dituen txapelketetara zazpi talde aurkeztu ditu Zubietak. Seniorretan, bi talde erreboterako eta bat joko-garbirako; eta gaztetxoetan, hasi umeetatik eta juniorretaraino, beste joko-garbigoko bost talde.

Eta bada trinketean, eskuz, jokatuko duen bikote bat ere.


Pelotariak plazan ari diren bitartean, Zubietako Pilota Elkartek bigarren batzar orokorra iragarri du hilaren 18rako. Batzarra arratsaldeko 16.30etan izango da eskola txikietan. Azken urteko lanaren balantzeaz eta etorkizuneko helburuez hitz egingo da. Bazkideek ez ezik, interesatutako guztiak izango dituzte zabalik batzarrerako ateak.

Hipodromo aldean ere bada mugimendua udaberri honetan. Batetik, zaldi karrerak hasi zaizkigu eta, bestetik, Bugati inguruko merkatuaren obrak

Xabier Arregi



aurrera doaz. Penagarria eta haserretzeko modukoa da obra horiek egiteko era. Zubietarrok oraindik ez dugu behin-betiko proiekturik ikusi. Hortik atera kontuak.





## Ez dago bakerik barkamenik gabe

**J**oxe Ramon Trebiño Irungo Artia parroikiko apaiza da. Azken urteetan, hango jendearekin marjinazioa lantzen ari bada ere, orain dela sei urte komunikabide guztietan zabaldu zen bere izena. ETako ustezko bi kide parrokian hartzeagatik kartzelan egon zen Eibarko apaiz hau. Martxoaren 27an Zioztza Gazte Elkarteak antolatuta "Bakea barkamenik gabe" hitzaldia eskaini zuen 100 pertsona ingururen aurrean.

Gogoeta bat egitera etorri zen **Joxe Ramon Trebiño** Usurbila, apal eta umil, hala esan zuen berak. "Bakea barkamenik gabe" moduko gai sakona hartu eta horren inguruan zenbait gogoeta agertu zituen. Itxaropentsu agertu zen Irungo apaiza, batez ere kristau fedea eragindako konfidantza batekin, itxaropen batekin. Fede horrek gizakiaren konfidantza edukitzera darama. Nahiz eta Euskal Herrian pakegintzan zailtasun ugari izan, jendearen gehien-goak amets hori du eta gizakiaren halako konfidantza bazuela agertu zuen.

Bere mezua argi eta garbia izan zen: "bakea posiblea da eta horretan saiatu behar dugu guztiok". Euskal Herrian bakegintzaren bidean adiskidetzea beharrezkoa ikusten du eta adiskidetzeko barkamena ezinbestekoa. "Bakegintza alderdi ugari dituen bide bat da, prozesu



bat, bide luze eta sakona. Barkamena da niretzat alderdirik garrantzitsuena, baina beste alderdi asko daude eta beharrezkoak dira denak".

—  
 "Euskal Herrian  
 bakea posible da eta  
 hortan saiatu behar  
 dugu guztiok." J.R.  
 Trebiño  
 —

**Joxe Ramon Trebiñoren** esanetan bakea egiteko gauza asko behar dira. "Borondatea, portaerak behar dira, dogma-keriak utzi egin behar dira, indarkeria gainditu behar da, su etenak beharrezkoak izango dira, Euskal presoak gure herri-erakari beharko ditugu, giza eskubideak errespetatu behar dira, akordio politikoak lortu

behar dira, konsensoa eta marko juridiko demokratiko berri bat eraiki beharko da, el-karrizketa eta negoziaketa bultzatu eta gauzatu beharko da..." Hauek guztiak beharrezkoak izanda ez dira nahikoa. Horretarako, apaizaren arabera, denon artean gure herrian egiazko adiskidetzea izango da benetako konponbidea.

Konponbide hori adiskidetzea eta batez ere barkamenaren bidetik etorriko dela uste du Trebiñok. "Pertsonen eta taldeen arteko barkamenak sendotuko ditu egiazko bake baten sustraiak. Bakegintza, adiskidetzea, barkamena hemen bizi behar ditugu. Gizakien harremanak beti eskatzen du barkamena lehen, orain eta gero ere bai. Gatazkak historian zehar agertu dira, munduan zehar daude eta gerora ere agertuko dira-seguruena. Gure gaurko egoerak, urtetan daramagun gatazkak, sufrimenduz bete-

**JUANTXO**  
 Burdindegia



Kale nagusia, 10  
 Usurbil

☎  
 37 00 08

**MAHUKA**



GAZTE DENDA

*Udaberriko moda  
 berria zuretzat!*

Etxebeste kalea,3 - Tlf. 36 11 06



ARRAINDEGIA  
**PELLO**



Arizeta Kalea,1  
 Tlf 36 21 64  
 USURBIL





*tako egoera honek ozen eskatzen du bakegintzaren eta adiskidetzaren beharra”.*

Euskal Herrian bi edo hiru gatazka ikusten ditu gizartean eibartarrak, elkarbizitza zaila eta gogorra egiten duten gatazka larriak. Gatazka horiek bakea benetako bakea galarazten dute.

Arazo soziala da lehenengo. Gaur egungo gizartean dagoen langabezia maila altuak gatazka sozial garrantzitsua sortzen du Euskal Herrian.

Gatazka sozial eta politikoa da bigarrena. Trebiñoren ustez biak uztartuta daude. *“Bi giza elkarte daude, euskaldunak eta erdaldunak, elkarrekin konpontzeko arazoak ditugunak. Gainetik eta azpitik, aldiz, arazo politikoa dago, urtetan konpondu gabe, aspalditik datorkigun gatazka. Honen inguruan dago indarkeria, tresna politiko bezala, norberak bere helburu politikoak lortzeko erabiltzen den indarkeria hain zuzen ere. Batetik autodeterminazio eskubidea, bestetik konstituzioaren inposaketa...”* Honen ondorioak omen dira hilketak, heriotzak, torturak... sufrimendu ugari eta urradura galanta Euskal Herrian.

Gatazka hau behar bezala gainditzeko ez da askotan asmo garbirik ikusten. *“Batzuetan halako argi izpiak ikusten dira, itxaropentsu agertzen gara, baina segituan halako etsipena dator. Eman behar diren urrats politikoak emateko borondate eta ausardiarik*

*ez dagoelako agian, indarke-riaren murrontza gainditzeko gauza ez garelako eta giza-banako bakoitzaren eta taldeen barne jarrerak egokiak ez direlako”.* Bide luzea omen

---

**Bakegintzak porrot egingo du pertsonen eta taldeen adiskidetzeari ematen ez bada**

---

daukagu aurrean, baina erdi bidean geldituko omen gara beti. *“Bakegintzak porrot egingo du pertsonen eta taldeen adiskidetzeari ematen ez bada. Hau da, barkamenaren esperientzia gauzatzen ez bada”.* Donostiako gotzaiak, **Jose Maria Setienek** esandakoa gogorarazi zuen Trebiñok: *“egiazko bake iraunkorra lortu*



*ahal izateko aurkitu eta erabili behar ditugun bakegintzarako bideak motz geldituko lirateke adiskidetze sozialera eta adiskidetze horrek eska dezakeen barkamenera ere eramango ez bagintu”.*

Akordio politikoak beharrezkoak dira, eta urrats haundia suposatzen dute bake bidean. Baina bake sozial bat ez badago motz gelditzen dira. *“Historiak asko erakusten digu arlo honetan. Bosnian estruktura politiko bat sortu zuten, baina azpian sekulako urradura zegoen. Nahiz eta estruktura politiko batzuk lortu, barkamenarekin adiskidetzeari ematen ez bada ematen jai dago. Sendatu gabeko zauriak oso barruan daude, ez da adiskidetzeari eman, ez da barkamenik izan. Baina horrela ezin da bizi, elkarbizitza horrela ezin da egin”.* Etxean ere elkarrekin konponbiderik, barkamenik, adiskidetasunik ez badago jai dagoela dio eibarko apaizak. Kontraesanak gero eta zortzagoak izango dira eta berriro ere etendura.

*“Gizartea denon artean egingo dugun esan zuen Joxe Ramon Trebiñok- Akordio politikoak garrantzia haundikoak direla ezin ukatu, baina hori bai, horiek bakarrik ez dute gizartearen elkarbizitza osatzen. Egiazko bake bakegileek egingo dute, adiskidetzaren dinamika sortuz eta biziz. Gizarte giro honetan oso garrantzitsua da pertsonentzat eta gizartea berarentzat barkamena ematen eta hartzen jakitea”.*

**Josu Aranberri**

**XABI ER**  
**EDARITEGIA**

- Pintxo aukera bikaina
- Gosari bereziak

Aritzeta, 2 ☎ 36 19 78



**URTINEA**  
**LORATEGIA**

*Lore eta lore landareak*

San Esteban  
Tlf. 36 22 55

**KUADERNA**  
**ITZAZU**  
**NOAUA!**  
**GUZTIAK**



## Hondakin gehiegi sortzen dugu

**E**txean, baxuan, ofizinan eta beste hainbat lekutan sortzen den zaborra poltsetan sartu eta zaborbiltzaileek goizean bildu dezaten dagokion lekuan uzten dugu. Baina gero zer egiten da zabor horrekin? Gaur egun zaborrak eta bere bilketa bereiztuak (papera, beira, pilak...) garrantzi handia du bai naturarentzako baita gu geuretzako ere.

Gaur egungo eta etorkizuneko arazo larrienetakoa da zaborra. Urtean zehar biltzen den zabor kopurua izugarria da. Usurbilen, adibidez, beira, papera, kartoia eta honelako bilketa bereiztuak kontutan hartu gabe, 1.809.660 kilo zabor sortu genituen 1997. urtean. Usurbildarrok 344 kg. zabor sortu genuen 1997an biztanleko, egun bakoitzeko kilo bat ia.

Zaborra poltsan sartu eta kalean uzten dugu goizetan. Zabor hori bildu eta dagokion lekura eramateaz zaborbiltzaileak arduratzen dira. Donostia, Orereta, Pasaia,



Oiartzun, Lezo, Astigarraga, Lasarte-Oria, Urnieta, Hernani eta Usurbilgo udalerriek ez dute hondakin kopuru bera sortzen baina badute zer bait amankomunean: herri haue-tako zaborra San Markoseko mankomunidadeira eramaten da. Zaborbiltzaileek egunero bildutako zaborra San Markosa eramaten dute.

### Zaborra erretzetik energia ateratzera

Lehen, garai batean, Usurbilen sortutako zabor guztia Arratzain bidean zegoen

erretokira eraman eta erre egiten zen. Baina gaur egun zaborrari ematen zaion tratamendua erabat desberdina da. San Markoseko mankomunidadean energia mota berriak errekuperatzen dira hondakin horietatik. Biogasa atera eta energia indarra sortzen da guk kalean uzten dugun zabor hortatik.

1995. urteaz geroztik erreku-peratzen da energia San Markosen. Zaborra pilatzen joaten da mendi antzeko bat egitera iritsi arte. Bi metro altuerako hondakina pilatu

eta lurra botatzen zaio gainean. Ereku hori topera iristen denean, itxi eta hilabetera biogasa ateratzen hasten dira. Zaborra lurrarekin nahastua dagoen leku horretara hodi batzuk sartzen dituzte. Hilabetera, hodi horietatik biogasa (metanoa eta CO2a) ateratzen da eta hezetasuna kentzen diote. Biogasaren zati bat berriz ere zaborra dagoen

### 1997AN JASOTAKO ZABOR KOPURUA

HERRIA	BIZTANLEAK	ZABORRA	BEIRA	PAPERA
ASTIGARRAGA	3.178	1.228.280 kg.	55.6614 kg.	49.485 kg.
DONOSTIA	176.908	78.685.010 kg.	2.791985 kg.	4.864.033 kg.
HERNANI	18.627	6.114.340 kg.	260.487 kg.	327.023 kg.
LASARTE-ORIA	17.821	5.687.060 kg.	254.030 kg.	344.179 kg.
OIARTZUN	8.878	5.588.000 kg.	211.495 kg.	169.377 kg.
URNIETA	5.120	1.810.080 kg.	96.004 kg.	123.480 kg.
USURBIL	5.265	1.809.660 kg.	98.597 kg.	106.697 kg.



## URTEKO BATAZBESTEKOAK BIZTANLEKO

ZABORRA	Kg./bi.	BEIRA	Kg./bi.	PAPERA	Kg./bi.	PILAK	Kg./bi.
Oiartzun	629,4	Oiartzun	23,80	Donostia	26,97	Lasarte-Oria	26,97
Donostia	444,7	Urnieta	18,75	Urnieta	24,12	Donostia	24,12
Astigarraga	386,4	Usurbil	18,72	Usurbil	20,30	Usurbil	20,30
Urnieta	353,5	Astigarraga	17,56	Lasarte-Oria	19,33	Hernani	19,33
Usurbil	343,7	Donostia	15,48	Oiartzun	19,06	Oiartzun	19,06
Hernani	328,2	Hernani	14,27	Hernani	17,68	Urnieta	17,68
Lasarte-Oria	319,1	Lasarte-Oria	14,08	Astigarraga	15,56	Astigarraga	15,56

lekura bideratzen bada ere, bestea gasarekin nahasten dute, gero, hiru motorren bidez, energia indarra sortzeko.

1997an bildutako zaborrarenkin 11.054.031 Kwh. sortu ziren San Markosen, 5.000-6000 etxeko herri bat hornitzeko adina energia. Guzti hau lberdolari saltzen zaio, beraz, lberdrolatik jasotzen dugun argindarraren zati txiki bat guk sortzen dugun zaborretik errekuperatzen da.

San Markoseko zabortegia 2006. urterako bete egingo da. Piskanaka-piskanaka hondakinez osatutako mendiak sortzen ari dira eta ixten dutenean belarrez eta zuhaitzez osatutako mendia izango da inguru hori.

Birziklapena herritar askok ezagutu eta aurrera eramaten duten neurria da; herriko edukinontzietan jasotako paper eta beira kiloek baieztatzen dute hori. Bilketa bereziko programaren bidez beira, papera, trapu zaharrak, pilak edo zer gauza birziklatzen da gaur egun.

Paperari dagokionez, 1997. urtean 106.897 kg. paper bildu ziren Usurbilen. Edukinontzietan errekuperatu ziren 85.000 kilo, 9.000 kilo paper bildu ziren ikastetxeetan eta 12.000 kilo kartoi jaso ziren komertzioetan. Biztanle bakoitzaren batzabesteak 20,30 kg./bizt./urteko da.

Beiraren birziklapena ere oso garrantzitsua da. 1982. urtean

hasi ziren material hau biltzen eta ordutik gaur egunera izan duen garapena izugarria izan da. Euskal Autonomi Elkartearen 27.112.346 kg. bildu ziren iaz, 12,90 kg./ biztanleko.

Gipuzkoan, berriz, 10.395.454 kg., batzabeste 15,33 kg. biztanleko. Usurbilen iaz, guztira 98.597 kilo beira berreskuratu ziren, hau da biztanle bakoitzeko 18,72 kg. Ikusten denez EAEko eta Gipuzkoako batzabestearen gainetik gaude Usurbilen. Bestalde, jasotako beira tonelada bakoitzeko 1200 kilo lehengai eta 130 kilo gasolina aurrezten dira.

## Pila oso gutxi

Pilak eta trapu zaharrak ere bilketa bereiztuen programaren barnean daude. Birziklapen mota honetara oso ohituak ez bagaude ere, pilen birziklapena, behintzat, oso garrantzitsua da gaur egun. Usurbilen 580 kg. bakarrik berreskuratu ziren, biztanleko 110 gramo. Errekuperatutako trapu zaharren kopuruari begirada bat botatzen badiogu, material hau birziklatzeko ohi-tura falta izugarria dagoela konturatu daiteke, 1997. urtean 100 kilo besterik ez baitziren jaso.

Bilketa bereiztuen programa bere osotasunean hartuta, Usurbilen 206.174 kilo errekuperatu ziren, batzabeste 39.15 kg. usurbildar bakoitzeko.

Josu Aranberri



Arizmendiko zabortokira material inerteak eramaten dira, hau da, erakuntzan asko erabiltzen diren materialak, teilak, ladriloak...




## Txurrit tabernan zeudenak irtenarazi zituzten

Oihulari klowneko bikote infiltratuak Txurrit tabernan zegoen jendea desalojatu nahi izan zuen joan den martxoaren 26an. Pistolak eskuetan hartuta, modu pake-tsuan atera nahi izan zituzten Txurriteko bezeroak. Inor ez zen irten, han zeudenak antzerkia ikustera joanak baitziren. Bi infiltratuek jarrera gogorragoa hartu zuten eta tabernako jendea identifikatzen saiatu ziren. Hala ere ez zuten beraien helburua lortu. Inork ez zuen handik alde egin nahi. Zer egin egoera horre aurrean? Oka jokuan jolasten hasi ziren Oihulari klowneko bi kideak. Ikuskizun polita izan zen joan den ostegunekoak. Barre ugari egin zuen Txurriten bildu zen jendeak bi hauen kontura, eta beraien ere bai tabernan zeudenen kontura.



## Trenak gizon bat harrapatu zuen



Eusko Treneko tren batek Isaias D.D. 67 urteko Usurbildarra harrapatu eta arinki zauritu zuen joan den martxoaren 29an Santuenean. Trena 15.00etan irten zen Zumaiatik eta Usurbilgo geltokitik 100 metro ingurura zegoela, Santuenea inguruan, zauritu zen gizona trenbidera irten zen. Dirudienez, trena pasatzerakoan bere burua bota nahi izan zuen trenaren aurrera, baina trena poliki zihoanez ia gelditzea lortu zuen, nahiz eta trenaren albo batek gizona jo eta albo batera bota. Zaurituak golpe bat zuen hanka batean eta zauria bekainean.

## Martxoaren 12ko hilketari buruzko datu gehaigo

Ramon Fernandez Pello Arregiren hilketaren kasua daraman magistratua eta defentsa nahiz akusatzaileen abokatuak Usurbilgo bitxidenda ikusten izan ziren joan den martxoaren 31an. Hemen eskopeta tiro bat antzeman zuten bitxidenda barruan. Dirudienez, Pello Arregik erlojuak konpontzeko erabiltzen zuen tailerreko kristalean jo zuen Beasainen lapurtu zuten eskopetaz botatako tiroak. Bestalde, Ana Mari Zumetak, hilketaren ondoren detenitu zuten Antonio G.G. ezagutu zuen Pellorekin borrokan ari zirenetako bat bera zela ziurtatuz.



# ORBELDI


MARKEL OLAIZOLA  
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



GENERALI  
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak  
zure zerbitzurako

Aritzeta, 1 Tlf: (943) 37 18 07  
20170 Usurbil (Gipuzkoa)



Irazu kalea, 3 - Tlf. 37 00 13

# TXIRIBOGA TABERNA

pintxoak, bokatak  
eta plater konbinatuak

# PORTULARRUME



ITURGINDEGIA  
BAINUKO  
ALTZARIAK

Kale nagusia, 2-2-2D  
Tlf. Denda 36 46 37  
Etxea 36 52 99





**PRICAK EZ DU SUPER-MERKATUA IREKIKO**

Eroskik Usurbilen jarri behar duen supermerkatuari bideak zabaldu dizkiotenean (hilabete honetan emango zaio baiezkoa plan partzialari), Pricak Galarretan jarri behar zuen supermerkatuarekin aurrera ez egitea erabaki eta proiektua bertan behera uzten duela jakinarazi zuen joan den apirilaren 3an.



**J**oan den igandean, apirilaren 5ean, dantzaldia izan genuen herriko frontoian. Laiotz taldea arratsaldea alaitzen saiatu bazen ere dantzari gutxi ikusi genuen frontoian. Azken urteetako joerari jarraituz, frontoian dantza egitera inor gutxi animatzen da. Datorren apirilaren 18an Maixa eta Itziarren txanda izango da.

**90 MILIOI ZUBIETAKO SANEAMENDURAKO**

Donostiako udalak Zubietako saneamenduaren lehen fasea egiteko 90 milioi aurreikustea onartu du. Hipodromotik, jate-txeetatik, futbol zelaietatik eta irailean Bugatikoko merkatu berriak Ori ibaira joango diren isurketa zuzenak ezabatu nahi dira lehen fasean egingo diren lan hauen bidez.

**1998an zortzi milioi inguruko aurrekontua**

**N**oaua! Kultur Elkarteak urteroko batzarra egin zuen joan den martxoaren 28an. Bazkide guztiei luzatu zitzaieen batzarrera etortzeko deia, baina gutxi batzuk izan ziren larunbat goizean udaleko pleno aretora azaltzera animatu zirenak.

Noaua! K. E., 325 bazkide izatetik 413 izatera pasa da urtebetean. Herriko 18 taldeekin hitzarmenak sinatzeaz gain, Sohuta nahiz Urruñako ikastolen alde eta "apelliduen abizendu" kanpainan parte hartu du. Guztira 23 ale eta uholdeetako ale berezia argitaratu ziren 1997an eta *Noaua!* guztiak koadernatzeko eskaintzak uste baino arrakasta haundiagoa izan zuen.

1998. urtean berrikuntza asko izango dira. 500 bazkideko kopuru pentsaezin horretara iritsi asmoz, etxetzeko bazkide kanpainari ekin nahi zaio aurten. Bestalde, herritarren eskura egongo litzatekeen dokumentazio zentru duin bat sortzen hastea da Noaua! K. E.aren erronka nagusia. 24 ale argitaratuko dira eta *Noaua!* aldizkariak gain, beka edo

lehiaketa moduan, liburu bat edo beste argitaratzeko asmoa dago. Horretarako, Noaua! Kultur Elkartearen aurrekontua zortzi milioi ingurukoa izango da 1998an.

Zuzendaritza Batzordean aldaketak izango dira. **Andoni Sagarnak** lehendakaria izaten jarraituko du, **Olatz Matxain** izango da lehendakari-ordea, **Aitor Pikabea** diruzaina eta bokaletan emango dira aldaketak. **Iñaki Salsamendi** eta **Mari Jose Maizek Pili Lizaso** eta **Juanjo Gomezen** lekua hartuko dute. Guzti hauekin batera, **Jakoba Errekondo**, **Iker Muguruza**, **Zalao Arnaz**, **Maiete Zubeldia**, **Idoia Agirre** eta **Josu Aranberri** dira Noaua! Kultur Elkartearen zuzendaritza batzordea osatuko dutenak.



**P A T R I**

**J A T E T X E A**

Eguneko bazkariak eta afariak

**ZURE IZEN-ABIZENAK EUSKALDUNDU NAHI BADITUZU, ETORRI ZAITEZ GUREGANA, GUK LAGUNDUKO ZAITUGU!**



Kale nagusia 37 Tel. 36 03 21



USURBILGO UDALA



**TXARO ARTZE ILEAPAINDEGIA**

Buru-azalaren zainketa Ile-apainketa

Etxebeste, 3

Tel. 37 16 85




## Liga denboraldi bikaina ospatzeko uretara

**U**surbil K.E. 2. nazionaleko eskubaloitako taldeak ligari amaiera bikaina eman zion joan den apirilaren 5ean. Oiardo kiroldegian Donibane ligako txapelketa gaituzten 22-21. Igoerako fasean sartzeko aukera eskuartearen izan dute azken partidua honetara arte. Bigarren postuan zegoen Escolapios taldeak berdindu edo galdu egin behar zuen, baina hori ez zen gertatu. Hala ere, 3. postua eskuratu du Jose Lorenzo "Manzano"k zuzentzen duen taldeak.

Bigarren nazionaleko eskubaloitako taldeak liga denboraldi bikaina burutu du aurten. Joan den urrian hasi zuten ligan hirugarren postua eskuratu dute, inoiz Usurbil K.E.ak maila honetan lortu duen posturik onena hain zuzen ere. **Jose Lorenzo "Manzano"** da talde honen entrenatzailea. Orain arte infantilak, kadeteak eta jubenilak zuzendu izan ditu, baina aurten, lehen aldiz hartu du maila goreneko taldearen ardura iaz Gipuzkoako entrenatzaile onena izendatu zuten gizonak.

**Kepa Unanue, Mikel Iturrioz, Iker Portularrume, Aitor Arruti Ibon Izagirre, Kimez Uranga, Eneko Olasagasti, Iñigo Sala, Asier Salsamendi, Iñaki Urroz, Enrike Uli, Imanol Goenaga, Anartz Goia eta Antonio Moriana** dira 3. postu hori eskuratzea posible egin duten



*Ligako azken partidua jokatu ondoren jokalariek Oiardo kiroldegiko piztina-bota zuten jantzi eta guzti Jose Lorenzo entrenatzailea*

jokalariek. Manzanoren esanetan denboraldia oso ona izan da, "dena ondo irten zaigu aurten. Taldeko jokalariek gehienak oso gazteak direla kontutan hartuta eta niretzat ere maila honetan lehen urtea izanda gustora egoteko moduan gaude. Maila honetako beste taldeak harrirituta daude gurekin. Gure jokalariek batezbesteko adina oso baxua da. Aurten 18 urterekin sei jokalariek igo dira jubeniletatik eta beste lau jokalariek ere 23 urtez azpikoak dira". Hauekin eta esperientzia duten beste hiru jokalarirekin denboraldi bikaina burutu dute aurten.

Igoerako fasea jokatzeko aukera ere eskuartearen izan dute. Txapelketako lehenengo bi postuetan gelditu behar zuten eta bigarren postuan gelditu den Escolapios taldearengandik puntu bakar batera gelditu dira. Denboraldi hasie-

ran mailari eustea zen entrenatzailearen helburu nagusia. Hala ere, helburu hori atzean gelditu zen aspaldi. "Lehenengo itzulia oso ona egin genuen. Bigarrena ere bide horretatik zihoan, baina lesio asko izan ditugu. Lesioengatik eta taldearen esperientzia faltagatik ez dugu lortu bi lehenengo postuetan sartzea".

Jose Lorenzok badaki non dagoen denboraldi bikaina egitearen sekretua. "Aurrendenboraldi gogorra egin genuen. Egunero egiten genituen entrenamenduak eta atseden hartzeko igandea uzten genuen. Lan gogor horrek bere fruituak eman ditu orain". Partiduak ez omen dira asteburuetan irabazten, astelehen, astearte eta ostiraletako entrenamenduetan baizik. Ea ba kopan denboraldia borobiltzen duten.

**Josu Aranberri**

## JOSE AIZPURUA UNANUE

Igeltseritza eta pintura

Teilatuen berritzea



Fatxadaren konponketa

Pintore kalea, 1 - 3.A  
LASARTE-ORIA  
Tel.: 36 17 83

Muna Lurra, 20 - 1.B  
USURBIL  
Tel.: 36 37 67



Ogi egin berria zure eskuetan!

**LABE-TXIKI**

Kale Nagusia, 2  
Tif 37 33 48  
37 09 13  
USURBIL




## Pala txapelketa gomazko pelotarekin

Usurbilgo pala txapelketa martxan da ja. Azken urte-  
etako geldialdiaren ondoren,  
garai batean herriko frontoian  
ikusmin handia sortzen zuen  
txapelketa berreskuratu  
nahi da aurten.

Pala eta pelota  
armariotik atera, biko-  
tea aurkitu eta entrena-  
zen hasi zaitezke.  
Txapelketa maiatzean  
eta ekainean amaitze-  
ko asmoa dago.  
Horretarako apirilaren  
29a izango da izen  
emateko azken eguna.  
Bikote bakoitzak izena  
eman eta 2000 pezeta  
jarri beharko ditu  
Aitzaga Elkartean.  
Ondoren, txapelketaren  
nondik norakoa zehaz-  
teko izena eman duten

bikoteekin bilera egingo da.

Zahar eta gazte, gazte eta  
zahar, hartu pala eta pelota  
eta hasi entrenatzen.




## Euskadiko sokatira txapelketa

Aurten ere goma gaineko  
sokatira ikusteko aukera  
izango da Usurbilen. Izan ere  
datorren apirilaren 18an 600  
kiloko pisuan Euskadiko  
sokatira txapelketako  
tiraldiak izango dira  
Oiarde kiroldegian arra-  
tsaldeko 17.00etan hasita.

Hamar talde izango  
dira aurrez-aurre bi tal-  
detan banatuta. Lehen  
multzoan Abadino, Beti  
Gazte, Barrundia,  
Altamira Gaztea eta  
Bizindarrek parte hartuko

dute. Bigarreanean Urrestila,  
Iparralde, Arrizkuzubi, Igeldo eta  
Orozkok neurtuko dituzte inda-  
rrak.



## Emaitzak

### Futbola

#### Martxoak 28-29

Usurbil F.T 3 - Aurrera Ond. 3 (2.R.)  
Aloña Mendi 11 - Usurbil F.T 0 (ju.)  
Alde Zaharra 5 - Usurbil F.T 1 (n.)

#### Apirilak 4-5

Loiolako 3 - Usurbil F.T 4 (2.R.)  
Usurbil F.T 1 - Almen 3 (ju.)  
San Ignacio 2 - Usurbil F.T 1 (n.)

### Eskubaloia

#### Martxoak 28-29

Arrasate 14 - Usurbil 33 (2.N.)  
Usurbil 24 - Trapagaran 24 (ju.m)  
Usurbil 29 - Trapagaran 26 (ka.m)  
Usurbil 21 - Zarautz 16 (ju.n)

#### Apirilak 4-5

Usurbil 22 - Donibane 21 (2.N.)  
Arrate 35 - Usurbil 20 (ju.m)  
Arrate 13 - Usurbil 20 (ka.m)

### Saskibaloia

Usurbil S.T 58 - Etxadi-Frudisk 68  
Mundarro 63 - Usurbil S.T 34

### Areto futbola

Lasarte kirolak 6 - Xabier Edar. 3  
Xabier Edar. 5 - Aiako 2

### Hondartzako futbola

Aginaga Sag. 4 - Basmo 4

### Laburdurak

R.: errejionalak    ka.: kadeteak  
N.: nazionala    n.: neskek  
ju.: jubenila    m.: mutilak

**Ekaitz**

Bideo eta ARGAZKIak

Usurbil

tlf 36 14 87

oIARTZUIN

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

**USURBILGO HORTZ KLINIKA**

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4  
Tlf 37 08 78


20170  
USURBIL



## Atanaxio, Diyo, Matxio...



Arantzazu Aranburu



- ▣ 44 urte
- ▣ Kaleberrikoa
- ▣ Etxekoandrea
- ▣ Musika, bertsolari-tza eta mendia oso gogoko ditu.

**A**tanaxio arakiña, Diyo, Matxio eta Kaxkoren artian gertatu zan oraiñ kontatuko dedan ixtoriya.

Atanaxio, bere osaba Joxe Olanokin morroi arakintzan. Eta behi bat ere edukitzen emen zuten.

Erriberan, Orbeldi aldián, zelai bat; eta an arbiya. Atanaxio konturaten da arbiya baten batek eraman diyola...

Txamunton sagardotegiya eta iluntzian beti bezela bildu dira, eta ayen artian Diyo kaminerua ere bai. Atanaxiok esan du bere arbi kontu ori, eta bai Diyok ere goguan artu!

Azparrengo azpiyan, Diputaziyuak zuan txabola edo almazena kamiyotako tresnak edukitzeko eta jakiña, Diyo kaminerua, ango arduraduna. Goizian zortzitan bere karrefilla eta erreminta artzera an juango zan egunero.

Andik Bizkartxo aldera etorri eta Orbeldi aldia nola ikusten dan, or konturaten da gizon bat Atanaxion zelayian ari dala. Itxoitendu eta jakiña, zein dan eza-gutzendu.

Illunabarrían beti bezela bildu dira Txaramunton...

Diyo joan da Atanaxiorengana eta esaten diyok:

-Atanaxio, bazakit zein dan arbi-zalia.

-Bai?

-Bai.

-Zeinda?

Eta Diyok:

-Kaxko

-Demonio aluba!- Atanaxiok. (Arbiya izaten dan tokiyan beste janari gutxi izaten da eta an ere ala)

Inguruan, Kaxkok ere bere sorua zun eta an paotxa bikaña.

Atanaxiok zerbait egin nai ordañetan eta or gogoratu zayo paotxa. Berak bei bakarra eta bizkarka ekartzeko berriz, oso urruti eta or esaten diyok Matxiok bere bei paria-kin goiz batian sorta bana paotx ekartzia. Eta Matxiok baietz.


Urrengo jayian, egun sentin, or dijuaz. Bi sorta egin eta kalera. Olanoneko atarin sorta bat bota eta Matxio bere etxera bestiakin.

Jai artan bertan, amaiketakua egin Tomaxenian eta atarin, plazako paretan kontra daudela, or konturaten da Atanaxio Aritzetako ixkiñan barrena Kaxko datorrela bizi-bizi. Jakiña zer pentsatuko zuan Atanaxiok! Iritsi da Kaxko eta bere-ala zuzentzen zayo Atanaxiori:

-Atanaxio, oraindik paotxa baziok gure soruan!

Eta Atanaxio:

-Gure arbiyak aitu ittuban!





## Babes ofizialeko etxeak Aginagan

**A**ginagan, Elutx sektorean, aurreikusita ez zeuden babes ofizialeko 18 etxebizitza eraikiko dira lehenengo fasean. Hasiera batean, 1995. urteko maiatzean onartu zen plan partzialean, lau etxebizitzaz osatutako lau bloke, banakako zortzi etxe eta hiru etxebizitzaz osatutako lau etxe adosatu aurreikusten ziren arren, Emilio Vazquez promotoreak aldaketa batzuk egin nahi zituela jakinarazi zion Usurbilgo udalari.

Lau etxe adosatuetatik hiru aurrera ateratzeko zailtasunak zituen promotoreak, horregatik, babes ofizialeko 18 etxebizitzaz ordezkatzea eskatu zion udalari. Honela, hiru etxebizitzako hiru etxe adosatuak egin ordez sei etxebizitzako hiru etxe egitea planteatzen da, guztiak babes ofizialekoak. Beraz, lehenengo fase honetan, bederatzi etxebizitza gehiago egiteaz gain, guztiak

babes ofizialekoak izango dira.

Joan den martxoaren 31ean egin zen plenoan aldaketak egiteko tramiteei hasiera ematea erabaki zen arau aldaketaren aurrerapenarekin. Informazioa publiko egiten denean 30 eguneko epea zabalduko da aurrerapena aztertu, aholkuak eman edo beste aukeraren bat proposatu nahi dutenentzat, Tramiteek urtebete inguru iraungo dute eta denbora horretan etxe horiek egiten ezingo dute hasi.

Bestalde, Elutx sektoreko bigarren fasea geldirik dago oraindik. Fase honetan egin behar diren banakako bi etxeak eta lau etxebizitzako bi blokeak egiteko arazoak daude. Plan partziala egin zutenean, lur sail haundi baten jabearekin ez zuten akordiorik lortu eta hiru urte pasa badira ere bere horretan jarraitzen du guztiak: irtenbiderik gabe.

□ Usurbilgo udalak ELA eta LAB sindikatuek aurkeztutako mozioa onartu zuen joan den martxoaren 31ean.

-Udala bat dator lanaldia murrizteko helburuarekin: sektore pribatuan gehienez 35 ordu eta 32 sektore publikoan.

-Lanik ez edo diru sarrera eskasak dituztenentzat oinarritzko errenta ezartzea eskatzen du.

-Legebiltzarrari helburu horietara iristeko legegintza eskumenik lortzeko beharrezko dena egin dezala eskatzen zaio.

□ Tolosako auzitegira etorriko diren epaile berriak euskaraz lan egiteko gai izatea eskatzen zuen mozioa eta herrian sinadura-bilketak egitea ahobatez onartu zuen udalak.

□ Atxega jauregia zaharberri-tu eta ostalaritza iharduerarako alokatzeko lehiaketa publikoa egitea onartu du udalak. Alokairua 75 urterako izango da eta G.A.On argitaratu eta 13 eguneko epean aurkeztu behar dira proposamenak.

□ Zahar egoitza berriko taberna Ana Isabel Elizondoren esku egongo da. Zahar egoitzako taberna ustiatzeko lehiaketara bi pertsona aurkeztu ziren eta Ana Isabel izango da zahar egoitzako taberna eta egoitza beraren mantenimenduz arduratuko dena.

□ Etxealdiko sarrera-irteera berria egiteko lurak erosteko akordio batera iritsi dira udala eta lurjabea.




# TXURRUT EDARITEGIA



Giro eta musika atsegina!

San Esteban kalea, 1  
Tel: 36 00 80



## Igandetan ganba-ziri mundialak!



**Hello friends!**

**This is Michael Morris, an English teacher.**

*Badakizue munduan ibiltzeko ezinbestekoa dela ingelesa.*

*Horregatik egin dut hiztegi hau, Euskal Herria eta mundua lotzeko ezinbesteko tresna.*

**Connecting Basques and the world.**



**Euskara-Ingelesa  
Ingelesa-Euskara  
Hiztegia:**

**1.200 orri**

**80.000 hitz  
eta adiera**

**Eranskin  
gramatikal zabala**

**Irudiak, mapak  
eta bestelako  
ikasmateriala**

**Ingalaterrako  
nahiz EEBBeko  
ingelesa  
ahoskatzeko gidak**

**1. alearekin  
tapak doan**

**Otsailaren 28tik aurrera,  
asteazken eta larunbatetan 225 pzta. +  
9 libera**

**Egunkaria**



## Bota bertsoa

### Giza hilketa

Gure herria samindu duen gertaera dut gai hartzen halakoetan "ezer ez gera" maiz entzuten da esaten. Tristura eta ezina dira gaur ditugunak sentitzen ustekabean etorri eta gure erlojerua hil baitzuten.

Alarguna eta seme-alabak familia urratuta galderak, kezkak eta beldurrak denok ditugu nahastuta. Ezintasunak gailentzen gaitu zer nolatan pentsatuta bizia kendu diote baina genuen Pello estimatuta

Jaio eta bizi Orion baina Usurbil bertan lantoki egunero fik-taken artean ezertan ez zuen aitzaki. Hura hil duen gaizkileak zer egin duen ez daki usurbildarrok ez gera ahaztuko inoiz zutaz Arregi.

Kintin Segurola

## Erremedioen txokoa

### KATARROA SENDATZEKO


Uda partean bildu eta ondo lehortu ondoren jasota daukagun hatzaparka bat berbena litro bat ardo txuritan irakiten jarri. Irakiten ari denean kilo bat azukre gehitu eta jarabe antzeko bat egin arte ondo nahastuz su gainean eduki, Gero hozten utzi eta katarroa sendatzeko bi orduz behin kutxarakada bat hartu.



### Behar duguna:

- \*Ardo txuria, 1l.
- \*Berbena-belarra (*Verbena officinatis*)
- \*Azukrea, 1 kg.

## Lehiaketa



### Zenbat kanpai daude Salbatore parroikiko dorrean?

Asmatzaileen artean **Arraten** bi lagunentzako afaria zozketatuko da

Behiak lau errape dituela? Nondik asmatu duzue astakeria hori? Behiak errape bakarra du, baina lau erro. Kalezarren bazekiten hori, **Anjel Matxainek** ez baitu hutsegin.

**Anxetan** bapo afaltzeko aukera izango du berak. Zorionak!



Imanol Ikutza  
Tragoxkan saria jasotzen

TABERNA-JATETXEA



**ANTXETA**

EGUZKITZA, 4  
20.170 USURBIL

TEL: 37 03 44

Iturgintza - Gasa - Berokuntza



**J. Orbegozo**



Bizkarra 1, 1.esk.

☎ 37 29 37 - 36 59 26




## Enpresa pribatuekin ere euskaraz

**U**EMAKo bost udalerrik, Usurbil barne, eta ATR (Asistencia Tecnica Recaudatoria) enpresak euskaraz jarduteko hitzarmena sinatu zuten joan den martxoaren 26an. Enpresa pribatuekin sinatutako mota honetako lehen hitzarmen honen bidez, ATR eta bost udalerrien arteko harremanetan euskara izango da hizkuntza nagusia.

Usurbil UEMAn sartu zenetik urtebete pasa da ia. Ekainaren 15ean Usurbilgo herriak UEMAn sartzeko erabakia hartu zuen, eta euskararen normalkuntzaren bidean lanean ari da Udal Euskaldunen Mankomunitateko gainontzeko herriekin batera. Oraingoan helburu hori lortzeko bidean urrats garrantzitsu bat eman berri dute: ATR enpresa pribatua eta Usurbil, Altzo, Aduna, Ikaztegieta eta Oiartzungo udalen arteko harremanak, bai ahozkoak bai idatzizkoak, euskaraz bideratzeko hitzarmena sinatu dute.

Euskararen normalkuntzaren bidean urrats garrantzitsua da hitzarmen hau. Udalean nahiz herritarrekiko harremanetan euskararen erabilpena bultzatzeaz gain, enpresa pribatuetan euskara gero eta gehiago erabiltzea ekar dezakeela uste dute UEMAKo ordezkariak. **Esteban Agirre** UEMAKo teknikariaren esanetan, "UEMA barruan gauden Gipuzkoako 17 udaletan, edozein jardue-



*retan euskara erabiltzeko gai gara, eta hala egiten da gainera. Udalez kanpoko pertsona eta erakundeak dira erdaraz egitera behartzen gaituztenak. Horregatik harreman zuzena dugun enpresa pribatu batekin mota honetako lehen hitzarmena sinatzea oso garrantzitsua da".* UEMAKo ordezkarien ustetan Euskararen erabilpenaren normalkuntzak ez du herritar eta udalaren arteko harremanetara mugatu behar, herriko eltze nagusiarekin harremana duten enpresa publiko nahiz pribatuetara ere iristea ezinbestekoa da.

### Lan guztiak euskaraz

ATRk, hitzarmena sinatu duten bost udalerriez gain, Gipuzkoako beste 15 udalerriekin egiten du lan. UEMAKo udalerrri horietan lanak euska-

raz egingo dira, baina lan egiten duten beste udalekin ere euskara erabiltzeko ahaleginak egingo dituztela adierazi dute **Miren Etxezarreta** eta **Juan Jose Gonzalez** ATRko ordezkariak. Konpromezua betetzeko, Eusko Jaurlaritzako Euskara Sailari eta Elhuyarri laguntza eskatu dio enpresak.

ATR enpresarekin hitzarmena sinatu badute ere ekimen hau beste enpresetara zabaltzeko asmoa dute UEMAKo ordezkariak. **Xabier Pikabearen** arabera beste hainbat enpresa pribatuekin antzeko hitzarmenak egin daitezken lanean ari dira. Euskadiko kutxa, Kutxa, Iberdrola eta Telefonica aipatu zituzten besteak beste. "Horrelako kasuetan, UEMAKo udalerrri guztiekin sinatuko litzateke, eta bestela enpresak lan egiten duen udalerriekin".

**Josu Aranberri**



# Kima

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

**Xabier Carbayeda eta Goyo Martin**



Kale nagusia, 44- behea  
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97



**kafe berezia**

San Esteban kalea, 8  
TLF 36 27 70

20170  
USURBIL



### APIRILAK 9 osteguna

- Ostegun Santuan “**Jesusen azken afaria**” Salbatore parrokian. Bi hizkuntzetan arratsaldeko 18.30etan, euskaraz 19.00etan. Haurrak goizeko 11.30etan.

### APIRILAK 10 ostirala

- **Gurutz bidea** Salbatore parrokian. 9.00etan euskaraz, 10.00etan erdaraz.
- Ostiral Santuan “**Jaunaren heriotza**” ospatuko da Salbatore parrokian. Haurrak 11.30etan, 16.30etan erdaraz eta 18.00etan euskaraz

### APIRILAK 11 larunbata

- Larunbat Santuan **Pazko gaubela** Salbatore parrokian. Eukaristia gaueko 23.00etan.

### APIRILAK 13 astelehena

- **Euskal Herria Askatu!**ren manifestazioa. 20.00etan.

### APIRILAK 18 larunbata

- **Euskadiko sokatira txapelketa** Oiardo kiroldegian. Arratsaldeko 17.00etan hasita 600 kiloko pisuan.
- Udaberriko dantzaldien barnean **Maixa eta Itziar** herriko frontoian 22.30etan hasita.

### APIRILAK 19 igandea

- **Zumarteko** musika eskolako **abesbatzak** 1998ko apirilaren 19an Gipuzkoako abesbatzen federazioak antolatzen duen Kantata 98an partehartuko du Donostiako belodromoan.

### APIRILAK 20 astelehena

- **Euskal Herria Askatu!**ren manifestazioa. 20.00etan.

### OHARRAK

- ✓ Gipuzkoako AEK-k antolatuta **glotodidaktika ikastaroa**, euskara irakasle izateko. 100 ordutakoa izango da eta astean 10 emango dira. **Apirilaren 20an hasiko da. Argibide gehiago eta matrikula Etumeta euskaltegian** (372001) edo Gipuzkoako AEKn (471935)
- ✓ Etxealdian **garajea salgai**. Informazio gehiago 37 22 56 telefonon.
- ✓ **Etxea alokatu** nahi nuke Kaleberrin. Tlf. 37 14 95

### LANPOSTUAK

- ✓ Tolosako udalak kirol arloan sor daitezkeen aldi baterako beharrei erantzuteko kirol monitoreak hautatzeko eta zerrenda bat egiteko deialdia egin du. Esakaerak aurkezteko epea apirilak 22. Informazioa gehiago GAOko 62.ean.

### JARRAIREN GAZTE

#### TOPAGUNEA OIARTZUNEN

Apirilaren 9, 10 eta 11n Jarraik antolatzen duen Gazte Topagunea 98 burutuko da Oiartzunen. Hiru egunetan zehar, erakusketak, kale animazioa, hitzaldiak, mobilizazioak, tailerra, ekitaldi politikoak... hainbat eta hainbat ekimen izango dira. Gauean kontzertuak ere izango dira. Garage H, Fermin Muguruza & Duf, Asiau Dub Foundation, Su Ta Gar izango dira besteak beste

### URRUÑAKO IKASTOLAREN ALDEKO EGUNA APIRILAREN 19AN

Goizeko 11.30etan, herriko txistularien esnadeia.

12.00etan, **urruñatarrei ongi etorria** eta harrera herriko sarreran. Segidan, pelota partiduak:

Eskuz gaztetxoak:

**Agirretxe- Otxagabia** (Usurbil)  
**Lorenzo-Peñagarikano** (Usurbil)

Palez helduak:

**Larratxea-Urrutia** (Urruñak)  
**Errekondotarrak** (Usurbil)

Eguerdiko 14.30etan herri bazkaria. Entsalada mixta, makailu tortila, legatza saltza berdean eta postrea. 2000 pezeta helduek, 1000 pezeta haurrek. Bazkalostean Urruñako ordezkariak, herrian bildutako **dirua emango zaie**.

## BAZKIDIE TXARTIELA

5.000 PEZETA URTE OSORAKO

**Noaua!!**  
HAMAROTTERAKIA

Izena: \_\_\_\_\_  
1.Abizena: \_\_\_\_\_  
2.Abizena: \_\_\_\_\_  
Helbidea: \_\_\_\_\_  
Herria: \_\_\_\_\_  
Tfnoc: \_\_\_\_\_  
Kontu Korrontea (20 digito): \_\_\_\_\_

# 396

**bazkide ditu Noauak.  
Zu ere egin zaitez  
bazkide**





Zubieta, Tlf: 36 12 29  
Eguerdietan irekita eta igandeetan itxita

## IRUIN



Kalezar, Tlf: 36 22 28  
Igande gauetan eta astelehen eguerdian itxita

## SAIZAR



Aginaga, Tlf: 37 26 91  
Igande gauetan itxita.

## URDAIRA



Aginaga, Tlf: 36 67 10  
Etxeko sagardoa dastagai urte osoan.

## AGINAGA



Zubieta, Tlf: 36 20 49  
Egunero txoixeko sagardoa dastatzeko aukera.

## ARAETA



Trokoalde, Tlf: 37 16 40  
Sagardotegi eta etxeko menua egunero.

## ILLUNBE

